

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

150 senidek baino gehiagok parte hartuko dute datorren 30ean Gobernuak Gurseko kontzentrazio eremuan egon ziren nafarrei egingo dien omenaldian

Omentzeko, ordaintzeko eta monolito bat inauguratzeko ekitaldi honen ondoren beste ekitaldi bat egingo da Euskadiko eta Akitania Berriko agintariekin

Osteguna, 2017.eko irailak 14

Dagoeneko 150 senidek baino gehiagok berretsi dute Nafarroako Gobernuak datorren irailaren 30ean Gurseko kontzentrazio eremuan, Oloroeko Andre Mariako herriaren inguruan, egingo duen omenaldian izango direla.

Ekitaldiaren helburua Gurseko kontzentrazio eremuan egon ziren 500 nafar inguruei omenaldia egitea da. Ekitaldi publikoa eta herritarrei irekia izango da, Nafarroako familiekin eta erakundeekin gertaera horien gogoratu nahi duten eta askatasunarekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa agertu nahi dutenentzat; baita errespetuan oinarrituz, bizikidetzara eraiki nahi direnentzat ere.

Omentzeko eta ordaintzeko ekitaldian hauek izango dira: Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria, Ainhoa Aznarez, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria eta Pablo Azcona, Nafarroako Udaleri eta Kontzejuen Federaziko lehendakaria. Ekitaldia 11:00etan hasiko da kontzentrazio eremuan, eta han bertan, eremu horren barruan egon ziren nafarren omenezko monumentua inauguratuko dute. Zenbait hitzaldiren ondoren (horien artean Raimond Villalbarena, Terres de Mèmoire(s) et de Luttes elkarteko lehendakaria eta Gursen egondakoen ondorengoa dena) ekitaldiaren amaieran Lehendakariak hitz egingo du, monumentua inauguratuko dute eta lore-eskaintza egingo dute bertaratutakoek.

Gursera joaten diren pertsonak artatzeko, eguraldi txarra egiten badu, aterpe bat jarriko da osasun-zerbitzuekin eta ehun aulki inguru adinekoentzat.



Omenaldiaren kartela.

Ekitaldia Euskadirekin eta Akitaniarekin

Nafarroako Gobernuaren ekitaldiaren ondoren beste erakunde-ekitaldi bat egingo da, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak batera antolatutakoa, Akitania Berria anfitrioi gida. Han, Uxue Barkos Lehendakaria, Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Akitania Berriko lehendakaria den Alain Rousset izango dira.

Bigarren ekitaldi hau 13:00ean izango da, eta Euroeskualdearen lankidetzaren politikaren barruan dago. Helburua da diktaduratik ihes eginda, Gursen kontzentrazio eremuan amaitu zuten pertsona horiek defendatu zuten demokraziaren eta askatasunaren balioa nabarmentzea.

OHARRA

Nafarroako Gobernuak antolatutako omenaldia pertsona horiek oroitzeko eta konpentsatzeko izan dadin, Nafarroako Gobernuak eskatzen du norbaitek senideren bat ezagutzen badu edo datu osagarriren bat badu, pazyconvivencia@navarra.es helbide elektronikora idaztea edo 848-426522 telefonora deitzea.